

	Zientzia-, teknologia- eta osasun-	Ikasten ikasteko gaitasuna	Matematikarako gaitasuna	Hizkuntza- komunikazioa ko gaitasuna	Informazioa tratatzeke eta teknologia	Gizarterako eta herritarasunerako gaitasuna	Giza eta arte- kulturalak	Norberaren autonomiara ko eta
1.Hizkuntza erabiltzeko eremu desberdinetatik jasotako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta ikuspegi kritikoaz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.	X	X	X	X	X	X	X	X
2. Ahoz eta idatziz egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta elkarrekintzan jarduteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia desberdinei eraginkortasunez erantzuteko.	X	X	X	X	X	X	X	X
3. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskara erabilerarekiko eta hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzeko.				X		X		
4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa baloratuko da.				X		X		
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuinguruan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza estereotipoak saihestuko dira.		X		X		X		
6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, hizkuntza desberdinen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.		X		X				
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoaz erabiltzea, eskola jardueran ahozko eta idatzizko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko.				X	X	X		
8. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.		X		X				X
9. Literatura-generoen oinarrizko arauak eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.				X			X	
10. Literatura-ondarea balioestea norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuinguruan izandako esperientzia sinbolizatzeke; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturako eta literatura unibertsaleko adibide garrantzitsuak irakurri eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraiki ahal izango da.				X			X	
11. Testu ereduak eta norberak hautatutako testuak irakurri eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko.				X			X	

